

Zumaiako azentuaz eta intonazioaz

Iñaki Gaminde
EHUko irakaslea

Almike Hazas
Magisteritza ikaslea

Lan honetan Zumaiako azentuaz eta intonazioaz ihardungo dugu lehen hurbilpen gisara. Herri honetako azentuera-molde zentrala deritzokeenaren barruan kokatzen da. Azentuerari buruzko sekzioan molde honen ezaugarri nagusiak aztertzen dira, lexiko alorrean –bai singularrean, bai pluralean– deklinabidean eta aditz alorrean. Intonazioari dagokion sekzioan esaldi deklaratzailen eredu nagusiak aztertzen dira. Batetik, hitz ez-markatudun sintagmez osatutako esaldiak, eta bestetik, hitz markatudun sintagmez osatutakoak. Azkenik sintagma konplexudun esaldi deklaratzailen jokabidea ikusiko da.

This work supposes a first approximation to the accent and intonation in Zumaia. The accent can be included in the central model. The writing analyses the main characteristics of this model from the lexical point of view (in singular and plural), in declination and in verbs.

Following, principal models of declaration sentences are analysed. On the other hand, sentences formed by sintagms of non-touched words, and on the other hand, the ones formed by touched-words.

Finally, declaration sentences made by complex sintagmas are also analysed.


Euskararen azentu-moldeen sailkapenean molde zentrala da hedadura geografikoari eta hitzun-kopuruari begira garrantzitsuenetariko bat. Molde honen ezaugarriak aipagarrienak ondoko era honetara laburbil daitezke:

- (a) Azentu bereizgarria
- (b) Azentuera arrunta [2]

Ezaugarri nagusiak hauek izanik ere, bada beste ezaugarri-multzo bat herri batetik bestera aldatu egiten dena, hala nola azentua txertatzeko eremua. Leku batzuetan azentua txertatzeko eremua hitz erroa bera da eta beste batzuetan, berriz, erroa baino handiagoa den zerbait, hala nola talde klitikoa. Honezaz gain, molde zentral honetako aldaera desberdinetan maila apalagoko ezaugarri zenbaitek azpimoldeak egitea ahalbidetzen digute. Hauetariko ezaugarri garrantzitsutzat azentua erro eta talde klitikoaren azken silaban txertatzeko ezintasuna aipa ditzakegu.

Azentu-molde honen hedadura geografikoari dagokionez, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdin barna hedatzen dela esan dezakegu; ondoko mapan ikus daiteke molde honek garaikoen aldean hartzen duen esparrua.

Lan honetan, moldearekiko lehen hurbilketa gisara, azentua eta intonazioa aztertu nahi ditugu. Azentuaren alorrean izen eta adjektiboen singularren azentuera aztertu ostean, ereduaren ezaugarri nagusiak agerian utziko ditugu. Honetarako corpus handi samarra bildu dugu¹. Jarraian izen eta adjektiboen pluralak eta deklinabidea aztertuko ditugu. Azkenik, aditz partizipio eta aditz jokatuaren azentuera ikertuko dira. Intonazioaren atalean, esaldi deklaratuaren kurbak baino ez ditugu landuko; atal honetan hitz markatu eta ez-markatutun sintagmez osaturiko esaldiak eta sintagma konplexuez osaturikoak bereiz ikusiko ditugu.



1. irudia: Molde zentralaren hedadura geografikoa.

1. Corpus hau bildu ahal izateko Miren Karmele Amilibiaren ezinbesteko laguntza izan dugu.

1. Azentua

Sekzio honetan herri honetako azentueraren ezaugarri nagusiak deskribatu nahi ditugu. Azentueraren sailkapenerako erabil daitezkeen irizpideen artean bat azentuaren balio bereizgarriarena dugu. Irizpide honen arabera, Zumaian azentuak nolabaiteko balio bereizgarria duela esan dezakegu, ondoko pareetan ikusten den moduan:

aríxa ('haría')	árixá ('aharía')
atía ('atea')	átia ('ahatea')

Sekzio honetan ematen ditugun datuen bidez, azentua txertatzeko eremua eta eskuarki txertatzen den silaba zein den ere zehaztuko dugu. Bestalde, azentu eta segmentuen arteko erlazioa ere agerian utziko dugu.

1.1. Izen eta adjektiboen azentuera

Ondoko datuetan ikusten den bezala, azentua hitzaren lehenbiziko silaba bietan baino ezin txerta daiteke; bestalde, eta beherago ikusiko den bezala, azentua txertatzeko eremua hitzaren erroa bera dela onartuko dugu. Berori dela eta, erro markatu eta ez-markatuen arteko banaketa egin dezakegu, erro markatutzat azentua lehen silaban daukatenak hartzen ditugularik, silaba bakarreko erroetan izan ezik; izan ere, kasu honetan azentua erroaren silaba bakarrean txertatzen da.

1.1.a. Erro ez-markatuak

(ó-o): áitza, árra, ártza, áuntza, áutza, áwa, béltza, béxa, gátza, gáwa, gíltza, góisa, górra, grísa, ílla, ítza, jáxa, kía, lúrra, mátza, máxa, míña, mótzta, óla, óna, órtza, ótza, óya, pártza, púsa, sáña, sárra, sítza, sówa, súa, txála, txárra, úra, úrra, xáwa

(o-ó-o): abárka, adárra, afáxa, agárra, agíña, aisía, akérra, alába, albúa, aldáka, aldápa, almwáda, amáma, anáxa, andría, arána, arbíxa, ardíxa, ardúa, argíxa, aríxa, arótza, arpéixa, arrántza, arráutza, arráxa, arréba, arríxa, arrósa, artúa, asáa, asála, asélga, astía, astúa, atía, attátta, atxúrta, aulkíxa, aundíxa, babáa, balkóya, baráwa, baría, bastérra, basúa, begíxa, belárra, beláuna, berúa, besúa, biátza, billóba, biórta, biótza, biría, bisárra, biskárra, biúna, burníxa, burúa, bustána, bustíña, dardárra, egúrta, ekáitza, eléisa, elúrta, emía, enórta, entráda, epéla, erbíxa, erída, erlía, ermíta, erráña, erríxa, erróta, eskóla, eskúa, esnía, espáña, estía, estíxa, estúla, esúrta, etxía, eulíxa, euríxa, gallúrta, ganáwa, garíxa, garrátza, gasíxa, gastáa, gastáña, gastía, gaxúa, gerríxa, gesáa, gibéla, giséna, gisóna, gordíña, gorríxa, gosía, gosúa, gurdíxa, ikátza, illárra, illía, illóba, illúna, intxáurra, iríña, iríxa, isárra, iséko, isótza, istérra, istúa, itáxa, itzála, itzúa, ixílla, ixkérra, ixkíña, kajóya, kandéla, kanpáya, karía, kaskáa, kaswéla, katía, katúa, kelárra, keréxa, kilkírta, kixkúrta, koipía, kokóta, koltxóya, koñáta, koñáwa, kopéta, kriskéta, kumúna, labía, lagúna, lakárra, lañúa, lapúrta, lasáxa, lastúa,

leátza, lentéja, lepúa, limóya, lokátza, lusía, makátza, malkúa, mantála, mantxúa, marrúa, masústa, mendíxa, mingáña, mokáwa, morróya, mutílla, muxílka, naránja, narrúa, negúa, neskáa, niníxa, odóla, ogíxa, okótza, ollúa, olupúa, ondárta, oríxa, osába, ospéla, ostrúa, otzúa, paéla, paréta, pasáa, patáta, patrika, pipérra, pulmóya, sabála, sagárta, saldáa, saldíxa, sapáta, sardía, sayétza, seláxa, senárta, sikíña, sillárta, sorríxa, sorúa, sotíña, suáitza, subíxa, suíxa, sulúa, suríxa, surrúnga, surrúta, sustérta, tabérta, tipúla, trongúa, trumóya, txakéta, txakúrta, txapéla, txekórta, txilbórta, tximísta, txoríxa, txorténa, udára, urdáxa, urdíña, urrétza, urría, urtía, usáxa, ustéla, xamúrta, ximáurta, ximéla, ximúrta

(o-ó-o-o): abératza, abária, alárguna, alérta, alkándora, alkátia, alpárgata, arágíxa, armáxua, arpégíxa, arrátuya, asáskala, asérixu, asúkria, atájua, atxímurta, bakállawa, barránkua, batáxua, beásuna, belárríxa, bigótia, binágría, edárixu, egárríxa, emástia, emiárta, erástuna, erlójua, eskállera, eskúbíxa, espíllua, estámua, famílixa, galtzétíña, garbántzua, garéstíxa, gutxúrduna, gwardásola, igéltzua, illárgíxa, injértua, iñúdiu, isáriu, isérdíxa, itókiña, ittúrríxa, itxásua, itxúsíxa, kalábasu, kaléntura, kamiñua, katíllua, kolóriu, konéjua, kutxáriu, kutxíllua, landáriu, lapíkua, malúbíxa, maskúbíxa, morénua, moskítua, okábilla, orrásisu, ostíkua, pañwélua, pasíllua, pentzízua, samórrua, sikátrísa, solómua, suángilla, tejábana, tellátua, tenédoria, terrénua, titáriu, trongóllua, txakóliña, txikáera, tximéleta, tximílixa, txindúrríxa, txitxáriu, txoríxua, txorkátilla, okóllua, uláriu, ustárríxa

(o-ó-o-o-o): alkákosua, apópillua, dobládillua, erbíñuria, errémolatxa, eskúmuturta, korápillua, melókotoya, okólondua

(o-ó-o-o-o-o): ayúntamentua, marrákaliña

1.1.b. Erro markatuak

(ó-o): áizpa, áma, ánka, áska, átta, bába, básu, bíga, bísta, bóltza, dénda, fája, fráta, gáltza, gánba, góna, gwápa, íntza, jíba, kája, kálba, kána, kóxka, lúma, máistra, mánta, méta, múga, náska, óta, pérra, písta, plása, pláya, róña, rósa, sála, sáltza, sáunka, séga, sílla, sópa, tása, télla, tréntza, trípa, txíxa

(ó-o-o): ábíxa, áltua, ántzarra, árixu, átia, bájua, básua, bérdua, búltua, dénbua, égua, éuskíxa, flákua, frúntzia, gándorra, gólpia, górputza, gránua, gústua, gwápua, járrua, kálbua, kália, kásua, kímua, kójua, kwártua, lásua, lékua, léxua, lístorra, lóriu, mákilla, máxua, méikua, mérkia, móñua, mória, músberra, músua, mútua, múxua, náusíxa, órdua, pétxua, píkua, pórrua, póstia, pútzua, sápuu, sémia, séruu, sóñua, swábia, tétxua, tóntua, trágua, tríkua, twértua, txábola, txátua, txíkíxa, txíngorra, txíntxia, txístua, úmia, úsua

(ó-o-o-o): bárríxua, érríxua, gónbitua, léngusua, nérbíxua, ólíxua, póxpolua, rúbíxua, sápatua, séríxua

Azentueraren eremua zein den jakiteko estrategia desberdinak dauzkagu; bata, talde klitikoan jokatutakoa aztertzea da. Ondoko adibideotan *da* adizki

klitikoarekin batera jasotako adibideetan ikusten den bezala, azentua isolatuki egondako silabatik ez dela mugitzen ikus daiteke:

úra da	óna da	béltza da	txuríxa da
sémia da	odóla da	gastía da	játekua da
lékua da	intxáurra da	léngusua da	olláskua da
égixa da	béstia da	alába da	alárguna da
ittúrrixa da	bertzólaxa da	txistúlaxa da	errótaxa da

Herri honetan daukagun beste estrategia argiago bat mugatzailearen jokabidearena dugu. *a-z* amaitutako silaba biko hitzen jokabidea aztertzan badugu, honako adibideak topa ditzakegu:

(a) asáa, babáa, gastáa, gesáa, kaskáa, neskáa, pasáa, saldáa

(b) ánka, áska, bába, bása, bóltza, dénda, fája, frúta, náska, óta, sópa, tása, télla, tréntza, trípa, txíxa, etab.

Era berean hiru silabako adibideetan honelakoak aurkitzen ditugu:

(c) abárka, aldáka, aldápa, arrósa, billóba, kopéta, lentéja, patáta, etab.

bába eta *babáa* horien arteko desberdintasuna azentuaren eraginaren bidez baino ezin azal daiteke; hots, mugatzailea asimilatzen da baldin eta aurreko *a* azentubakoa bada bestela atxikitzen da. Honek argi adierazten du azentuaren eremua hitz erroa dela.

Izen eta adjektibo singularren azentuaren arauak ondoko era honetara eman ditzakegu:

- (1) Azentu lexikalak. [1.
- (2) Azentua bigarren silaban [2 edo silaba bakarrean.
- (3) Mugatzailearen afijazioa.
- (4) Bokalen egokitzapenak.
 - (4.1.) $a \rightarrow \emptyset / a _ _ \# \#$
 - (4.2.) $\emptyset \rightarrow x / i _ _ a$
 - (4.3.) $e, o \rightarrow i, u / _ _ a$

	neska + a	baba + a	bide + a	ogi + a	asto + a	léku + a
(1)	-	bába + a	-	-	-	léku + a
(2)	neská + a	-	bidé + a	ogí + a	astó + a	-
(3)	neskáa	bábaa	bidéa	ogía	astóa	lékua
(4.1.)	-	bába	-	-	-	-
(4.2.)	-	-	-	ogíxa	-	-
(4.3.)	-	-	bidía	-	astúa	-
Azkenik	neskáa	bába	bidía	ogíxa	astúa	lékua

1.2. Izen eta adjektiboen pluralak

Isolatuki jaso ditugun ondoko datuen arabera, pluralean singularrean ikusi ditugun arau berberak aplikatzen direla esan dezakegu. Halandaze, molde zentral honetako beste herri askotan gertatzen denaren kontra, azentuak ez du balio bereizgarririk honetan.

(ó-o): áispak, áuntzak, béltzak, gátzak, górrak, lúrrak, máxak, ónak, óyak, sárrak, txárrak, txóixak, úrak, úrrak

(o-ó-o): agárrak, alábak, anáxak, andriák, apáisak, arának, ardíxak, ardúak, artúak, asáak, astúak, babáak, basúak, bidíak, biórrak, biúnak, egúrrak, erríxak, errótak, esníak, etxiák, eulíxak, ganáwak, garíxak, gastáñak, gastíak, gisónak, gorríxak, illóbak, intxáurrak, iríxak, katúak, koñáwak, lagúnak, lapúrrak, mendíxak, mutíllak, neskáak, ogíxak, ollárrak, ollúak, osábak, patátak, pipérrak, sabálak, sagárrak, saldíxak, sorúak, tabérnak, tipúlak, txakétak, txakúrrak, txarríxak, txuríxak

(ó-o-o): báskaixak, básuak, báutxixak, lékuak, lóriak, méikuak, mútuak, píkuak, pórruak, sémiak, úmiak

(o-ó-o-o): abératzak, alárgunak, alkátiak, arágixak, arrátoyak, egástixak, landáriak, langílliak, lapíkuak, olláskuak, sukáldiak, tellátuak, txakóliñak, uláriak

(ó-o-o-o): léngusuak

Deribazioetarako singularrean eman ditugun arau eta ordena berberak proposa ditzakegu:

	neska + ak	bide + ak	ogí + ak	asto + ak	léku + ak
(1)	-	-	-	-	léku + ak
(2)	neská + ak	bidé + ak	ogí + ak	astó + ak	-
(3)	neskáak	bidéak	ogíak	astóak	lékuak
(4.2.)	-	-	ogíxak	-	-
(4.3.)	-	bidíak	-	astúak	-
Azkenik	neskáak	bidíak	ogíxak	astúak	lékuak

1.3. Deklinabidea

Deklinabidearen azentuera azaltzeko, esan dezakegu ezen absolutu kasuan lortzen den eskema azentual berberari eusten zaiola edozein kasu-marka itsastean, bai bizidunen deklinabidean, bai bizigabeen deklinabidean; beraz, kasu-markek ez daukate inongo eraginik.

NESKA**Singularra**

neská
neskák
neskáí
neskáena
neskákin
neskáentzako

Plurala

neskáak
neskáak
neskáai
neskáena
neskáakin
neskáentzako

MUTIL**Singularra**

mutílla
mutíllak
mutíllari
mutíllena
mutíllakin
mutíllentzako

Plurala

mutíllak
mutíllak
mutíllari
mutíllena
mutíllakin
mutíllentzako

ERRI**Singularra**

erríxan
erríra
errítik
erríkua
erríraño

Plurala

erríxetan
erríxetaa
erríxetatik
erríxetakua
erríxetaaño

TABERNA**Singularra**

tabérnan
tabérnaa
tabérnatik
tabérnakua
tabérnaaño

Plurala

tabérnetan
tabérnetaa
tabérnetatik
tabérnetakua
tabérnetaaño

1.4. Aditz-partizipioak

Aditz-partizipioen azentuera izen eta adjektiboetan ikusi dugun berbera dugu. Aditz-partizipio markatuak azentua lehen silaban daukatenak dira, aditz-partizipio ez-markatuak, berriz, azentua bigarren silaban daukate, bigarren silaba hau azkena izan daitekeela. Hona hemen adibide batzuk:

(o-ó): bustí, ixó, botá, sartú, ertén, itxí, pistú, erré, erán, mostú, ittó, artú, eldú, ostú, jayó, galdú, saldú, neurtú, urtú, así, ustú, beté

(ó-o): áittu, ástu, déitu, górtu, jáiki, jántzi, járri, jétxi, jósi, létu, nástu

(o-ó-o): afáldu, alétu, amóstu, argítu, asmátu, aspértu, astíndu, barkátu, beltzátu, berótu, billátu, biúndu, bixúrdu, damútu, ebáki, egósi, ekárrri, eráman, erántzi, eróri, erósi, esáutu, eskátu, eskéñi, eskóndu, esnátu, etórri, flakátu, garbítu, gaxótu, geldítu, giséndu, gorrítu, gustátu, ibílli, igérri, igótu, igúrtzi, ikúsi, ikúttu, illúndu, irákin, iríki, itxáldu, ixéki, ixíldu, ixtútu, jolástu, kantátu, konpóndu, lagúndu, landá-tu, lastándu, legórtu, lusátu, makúrtu, maskátu, nekátu, okértu, orrástu, pentzátu, prejítu, sabáldu, sapáldu, sendátu, sentítu, sikíndu, sinístu, sulátu, surítu, suséndu, sutítu, tapátu, tragátu, txorróstu, txukúndu, txupátu, usáitu, ximúrtu

(o-ó-o-o): abérastu, akórdatu, allégatu, arrápatu, asérratu, batáxatu, beíratu, enténditu, errésatu, eskribitu, irábasi, itxúsitu, kontúratu

1.5. Aditz jokatuena azentua

Izen eta adjektiboen alorrean eman ditugun arau berberak aditz-partizipioetan aplikatu behar direla ikusita, aditz jokatueta zer gertatzen den ikusteko ondoko adibideak batu ditugu:

Silaba batekoak:

íl det	íl desù	íltzen dèt	ílko dèt
jó det	jó desù	jótzen dèt	jóko dèt
ján det	ján desù	játen dèt	jángo dèt

Silaba bikoak:

erré det	erré desù	errétzen dèt	erréko dèt
edán det	edán desù	edáten dèt	edángo dèt
galdú det	galdú desù	gáltzen dèt	galdúko dèt
saldú det	saldú desù	sáltzen dèt	saldúko dèt
jósi det	jósi desu	jósten dèt	jósiko det

Hiru silabakoak:

puskátu det	puskátu desù	puskátzen dèt	puskátuko dèt
erósi det	erósi desù	erósten dèt	erósiko dèt
ekárrí det	ekárrí desù	ekártzen dèt	ekárríko dèt
ikúsi det	ikúsi desù	ikústén dèt	ikúsiko dèt
berótu det	berótu desù	berótzen dèt	berótuko dèt
sapáldu det	sapáldu desù	sapáltzen dèt	sapálduko dèt
eskátu det	eskátu desù	eskátzen dèt	eskátuko dèt

Aditz burutueta aditz-partizipioak hartzen du azentu nagusia izen eta adjektiboetarako emandako erregela berberen arabera, hots, bigarren silaban [2 edo libre dagoen silaba bakarrean; azentua ezarri ostean laguntzailearen afijazioa egin beharko litzateke:

(1) Azentua ezarri [2 (edo silaba bakarrean)

(2) Aditz laguntzailea afijatu

	jo + det	galdu + det	sapaldu + det
(1)	jó + det	galdú + det	sapáldu + det
(2)	jó det	galdú det	sapáldu det

Erregela berberak erabiltzen dira aspektuen morfemak gehitzean; dena dela, -TEN morfemari dagokionez, berau aurreazentugarria dela esan dezakegu.

2. Intonazioa

Esaldi deklaratzailen intonazio ereduak deskribatzeko, esaldiaren barnean agertzen diren sintagma-kopuruak, sintagma-motak eta sintagmak osatzen duten azentueraren araberako hitz-mota ere bereiziko ditugu; hots, gure korpusean sintagma bat eta biko esaldiak jaso ditugu; bestalde, baditugu hitz bakarrez osaturiko sintagmak eta izen eta adjektiboz osatuak; azkenik, hitz markatuez osaturiko sintagmen erabilera hitz markatugabeez osaturikoetatik bereiz aztertuko dugu.

2.1. Sintagma bakarreko esaldiak

Sekzio honetan jaso ditugun esaldien kurbak aztertzeko bereizi behar ditugu, batetik, silaba bikoak, eta bestetik, hiru silabakoak. Bestalde, sintagmaren kokaera ere kontuan hartu behar da; hau da, aditzaren aurrean, galdegaigunean, edo aditzaren ostean agertzen den. Honen arabera ondoko aukerak ditugu:

Sintagma eta Aditza (S+A)

Aditza eta Sintagma (A+S)


(S+A) aukeran silaba biko sintagmekin ondoko esaldiok jaso ditugu, denak hitz markatugabeak izanik:

	1.	2.	3.	4.	5.
ura saldu du	213	238	200	183	166
ori sartu da	190	207	200	173	161
amak saldu du	197	238	188	179	159
beltza galdu du	195	222	175	175	158
onek saldu du	181	200	188	177	160
ori galdu du	186	219	197	183	166
lurra saldu du	210	238	188	186	164
ama sartu da	186	205	186	183	161
BATEZBESTEKOA	199,5	221,5	193	183	163,5

Hiru silabako sintagmekin ondoko beste hauek ditugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.
belarra saldu du	173	181	225	188	181	155
gisona sartu da	190	216	225	192	181	164
gisonak saldu du	186	210	225	186	183	163
mutilla sartu da	181	216	219	192	177	161
mutillak saldu du	181	210	231	186	183	130
eskolan sartu da	183	210	235	192	183	166
sagarra saldu du	181	195	219	183	175	150
tabernan sartu da	177	190	222	183	173	160
ollarra saldu du	183	207	238	192	188	164
intxaurra saldu du	190	219	253	188	181	163
BATEZBESTEKOA	181,5	200	239	188	181	159

Ondoko grafikoa ikusten den moduan esaldiaren gailurra galdegaigunean dagoen sintagmaren azken silaban kokatzen da, nahiz hitzaren azentua lehen silaban edo bigarreanean dagoen:




(A+S) aukeran, sintagma silaba bikoa denean, ondoko esaldiak ditugu:

	1.	2.	3.	4.	5.
sartu da ama	179	212	213	168	156
saldu du ura	177	192	200	173	164
sartu da ori	181	202	210	172	170
saldu du amak	181	216	228	181	156
galdu du ori	179	205	222	181	164
saldu du onek	186	207	231	192	173
saldu du lurra	175	213	213	177	156
galdu du beltza	179	216	219	177	161
BATEZBESTEKOA	179	214	216	172,5	158,5

Hiru silabako sintagmekin ondoko beste hauek jaso ditugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.
saldu du sagarra	188	202	222	181	172	163
sartu da eskolan	181	202	225	213	186	168
saldu du belarra	179	205	222	183	170	163
sartu da gisona	179	207	222	195	181	161
saldu du gisonak	181	210	228	202	181	164
sartu da tabernan	181	210	225	188	177	144
saldu du mutillak	181	202	216	177	179	160
sartu da mutilla	177	205	219	175	177	158
BATEZBESTEKOA	182,5	203,5	220,5	178	174,5	160,5



2.2. Sintagma biko esaldiak

Gorago esan bezala, sintagma biak aditzaren aurrean (S+S+A), edo bata aurrean eta bestea atzean (S+A+S) agertzen diren bereiziko dugu. Bestalde, sintagmen silaba-kopuruaren arabera beste bereizketa bat egin beharrean gaude, hots, silaba biko sintagmak eta hirukoak bereiz ikusiko ditugu.

Silaba biko sintagmak (S+S+A)

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.
amak lurra saldu du	195	231	216	225	179	175	163
amak ura saldu du	190	210	219	219	173	172	151
onek lurra saldu du	179	207	219	231	186	177	153
onek ura saldu du	181	207	228	228	181	175	158

ura amak saldu du	202	213	210	213	175	164	150
lurra amak saldu du	205	225	219	231	183	181	166
ura onek saldu du	210	213	195	205	179	172	158
lurra onek saldu du	192	216	207	207	170	168	149
BATEZBESTEKOA	193,5	223,5	211,5	216	174,5	171,5	156

Silaba biko sintagmak (S+A+S)

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.
lurra saldu du amak	195	225	192	205	190	170	160
ura saldu du amak	200	222	195	202	188	168	158
amak saldu du lurra	202	228	205	210	192	173	164
onek saldu du lurra	175	207	202	207	205	170	163
ura saldu du onek	202	210	195	197	210	179	161
amak saldu du ura	183	216	179	183	177	156	156
onek saldu du ura	175	197	205	210	186	166	156
BATEZBESTEKOA	185	211	198,5	207,5	188	168	158


Hiru silabako sintagmak (S+S+A)

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
belarra mutillak saldu du	172	192	210	195	207	219	177	173	155
gisonak belarra saldu du	186	205	222	192	197	216	179	177	161
mutillak sagarra saldu du	175	205	216	197	190	213	179	177	144
sagarra mutillak saldu du	183	202	221	186	200	219	179	179	155
belarra gisonak saldu du	177	188	228	195	210	222	179	177	163
gisonak sgarra saldu du	177	188	210	188	195	197	175	177	164
sagarra gisonak saldu du	179	186	219	195	197	205	150	177	158
mutillak belarra saldu du	172	195	216	177	183	202	168	166	139
mutillak intxaurra saldu du	186	219	242	202	202	228	181	179	157
intxaurra mutillak saldu du	186	210	253	207	213	228	186	183	163
BATEZBESTEKOA	179	201	231,5	201	210	223,5	181,5	178	159


Hiru silabako sintagmak (S+A+S)

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
mutillak saldu du sagarra	179	205	222	195	207	210	173	172	156
gisonak saldu du belarra	186	219	228	197	216	222	172	172	152
belarra saldu du gisonak	175	192	219	195	202	207	186	175	155
gisonak saldu du sagarra	183	213	222	188	197	216	179	173	161
mutillak saldu du belarra	181	202	222	188	195	202	172	164	148
belarra saldu du mutillak	175	188	222	186	192	219	172	168	158
BATEZBESTEKOA	177	196,5	222	190,5	199,5	214,5	172,5	170	157


Aditzaren aurrean sintagma bi daudenean, esaldi osoaren gailurra lehen sintagmaren azken silaban kokatzen da; hala ere, galdegaigunean dagoen sintagmaren azken silaba ia altuera berean dagoela esan dezakegu. Ondoko grafikoan hiru silabako sintagmez osaturiko esaldien batezbestekoen grafikoa ikus daiteke:



Ondoko grafikoan silaba biko sintagmen S+S+A eta S+A+S aukeren emaitzak ikus daitezke:



Beste honetan gauza bera, baina hiru silabako sintagmekin:



Grafikoetan argi agertzen den moduan, kasu bietan silabaren gailurra lehen sintagmaren azken silaban kokatzen da.


2.3. Hitz markatuden sintagmak

Galdegaigunean agertzen den hitza markatua denean zer gertatzen den ikusi ahal izateko ondoko esaldien neurriak ditugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.
básua saldu du	205	250	250	188	179	163
txístua saldu du	216	242	246	181	181	152
sémiak saldu du	216	242	253	186	183	183
BATEZBESTEKOA	211	246	252	187	181	173

Esaldiaren gailurra, hitz markatugabeen kasuan bezala, lehen sintagmaren azken silaban kokatzen bada ere, lehen silaba, azentuduna alegia, askozaz ere altuagoa da kasu honetan aurrekoan baino. Ondoko grafikoa, batezbestekoen bidez eginiko grafikoa ikus daiteke:

-Markatu	181,5	200	239	188	181	159
+Markatu	211	246	252	187	181	173




Jarraian aditz aurrean sintagma bi kokatuta, galdegaigunean dagoena markatua denean aztertzeko aukeratu ditugun esaldien emaitzak ditugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
mutillak básua saldu du	179	213	242	202	235	231	179	173	160
belarra sémiak saldu du	183	202	242	219	231	238	188	181	170
intxaurra sémiak saldu du	186	216	242	222	225	228	183	186	168
BATEZBESTEKOA	183	215	242	212	230	230	181	180	164

Hitz markatugabedunen bidez lortutako emaitzen aldean honako hau dugu:

Markatugabea	179	201	231,5	201	210	181,5	178	159
Markatua	183	215	242	212	230	181	180	164




Ondoko esaldietan sintagma markatua hasieran dagoena dugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
sémiak belarra saldu du	213	242	250	188	205	216	179	177	164
básua mutillak saldu du	200	253	246	205	216	231	188	177	164
sémiak intxaurra saldu du	225	250	262	210	216	242	188	181	15
sémiak sagarra saldu du	222	238	250	195	207	222	175	179	164
BATEZBESTEKOA	218	240	250	192	206	219	177	178	164


Aurrekoen aldean honako hau dugu:

Markatugabea	179	201	231,5	201	210	223,5	181,5	178	159
M (S+Sm)	183	215	242	212	230	230	181	180	164
M (Sm+S)	218	240	250	192	206	219	177	178	164




Sintagma biak markatuak izanez gero, honako hau dugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
básua sémiak saldu du	202	246	246	231	231	235	186	179	158
sémiak básua saldu du	222	246	253	207	231	225	183	183	163
BATEZBESTEKOA	212	246	250	219	231	230	185	181	161




Azkenik, aditzaren osteko sintagma markatua izanez gero, honako beste hau dugu:

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
sagarra saldu du sémiak	188	207	246	197	216	219	235	166	158
ollarra saldu du sémiak	181	210	242	197	207	225	183	170	155
belarra saldu du sémiak	181	205	235	190	213	210	183	170	170
intxaurra saldu du sémiak	183	207	242	190	205	202	175	164	152
BATEZBESTEKOA	186	207	244	194	211	211	205	165	155



Azkenik, aditzaren osteko sintagma markatua daukaten esaldien emaitzak markatugabeak daukatenekin alderatuz gero honako hau dugu:


Markatugabea	177	196,5	222	190,5	199,5	214,5	172,5	170	157
Markatua	186	207	244	194	211	211	205	165	155




2.4. Sintagma konplexuak

Izen eta adjekibodun sintagmez osaturiko esaldietan aurreko ataletan ikusi ditugun konfigurazio berberak agertzen dira. Batetik, esaldiaren gailurra esaldiaren lehen sintagman kokatzen da; eta bestetik, sintagmen gailurrak euron azken silabetan agertzen dira. Jaso ditugun esaldi batzuk emango ditugu jarraian:


	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.
gixon txarra sartu da	190	219	225	231	188	181	168
sagar ona saldu du	192	210	238	250	190	188	163
lagun ona sartu da	181	216	235	250	195	183	163
lagun txarra sartu da	181	216	222	235	190	179	161
gixon ona sartu da	192	222	228	238	210	183	164
BATEZBESTEKOA	191	221	227	235	199	182	166



	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
sagar gorrixa saldu du	202	231	246	242	250	192	183	166
gison andixa sartu da	190	228	225	235	258	197	186	170
lagun txikixa sartu da	179	225	225	222	238	197	183	167
BATEZBESTEKOA	191	228	236	232	244	195	183	167




	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.
mutillak sagar ona saldu du	190	222	238	212	216	221	221	183	181	163
gisonak sagar ona saldu du	188	207	228	188	200	207	219	179	179	166
BATEZBESTEKOA	189	215	233	200	208	214	220	181	180	165



	1.	2.	3.	4.	5.	6.
gisonak sagar gorrixa saldu du	192	228	242	210	225	207
mutillak sagar gorrixa saldu du	190	222	242	205	216	213
BATEZBESTEKOA	191	225	242	208	221	210

	7.	8.	9.	10.	11.
gisonak sagar gorrixa saldu du	225	227	182	181	159
mutillak sagar gorrixa saldu du	222	231	183	181	164
BATEZBESTEKOA	224	229	183	181	162



2.5. Esaldi deklaratuaren azterketa

Ikusi ditugun esaldi-mota guztien azterketa egin ahal izateko, hiru maila proposa ditzakegu. Lehendabizi, sintagma guztien azentudun silaban A*B azentu tonuduna txertatu beharko litzateke. Jarraian, esaldiari dagokion mailan beronen gailurra esaldiaren lehen sintagmaren azken silaban kokatuko litzateke (A´); era berean galdegaigunean dagoen sintagmaren azken silaban beste tonu altu bat txertatuko litzateke (A´´); azkenik esaldiaren mutur bietan muga-tonu baxuak txertatuko lirateke B%. Azkenean, maila fonetikoan tonuen egokitzapenak egin beharko lirateke, hala nola tonu bakoitzari, daukan egongunearen arabera, dagokion hertz-neurria gehituko litzazkioke. Deribazioak ondoko era honetara egingo lirateke:

	mutillak sagarra saldu du
Azentu tonudunak A*B	A*B A*B A*B
	mutillak sagarra saldu du
Gailurraren A´	A A´ A* B A B
	mutillak sagarra saldu du
A´´ tonuaren txertaketa	A A´ A A´´ A B
	mutillak sagarra saldu du
Muga tonuak	B%A A´ A A´´ A B%

3. Ondorioak


Aurreko ataletan ikusi ditugun datu eta azterketetan oinarrituta, azentueraren ondorio nagusiak honela laburbil ditzakegu:

- (1) Azentu bereizgarria (hitz markatuak daude)
- (2) Azentu-eremua: hitz erroa
- (3) Azentua txertatzeko norabidea: ezker-eskuin
- (4) Silaba burua [2


Intonazio alorrean hiru maila bereizi ditugu:

- (1) Azentudun silaban A*B azentu tonuduna.
- (2) Tonu altua fokalizatutako osagaiaren azken silaban.
- (3) Esaldiaren gailurra esaldi osoaren lehen osagaiaren azken silaban.

Azentua eta intonazioaren arteko erlazioei begira, atera dezakegun ondorio garrantzitsu bat zera da, hots, oinarritzko maiztasunaren gailurra ez datorrela bat silaba azentudunarekin. Isolatuki jasotako hitzetan oinarritzko maiztasunaren gailurrak bat egiten du beti silaba azentudunarekin. Ondoko grafikoan *gisona* hitzaren kurba ikus daiteke:



Hitz beraren kurba, esaldi baten aditzaren aurreko egongunean jasota, ondoko beste era honetara agertzen da (*gisona sartu da*):



Lan hau ez dugu amaitu nahi herri honetako suprasegmentalak ongi deskribatzeko aurrakusten ditugun hurrengo lanak aipatu gabe. Batetik, eta azentu-sistemari dagokionez, hitz eratorri eta konposatuen azentua lantzeari guztiz interesgarri deritzogu; era berean gainerako kategoria gramatikalen azentuera ere azterkizun gelditzen zaigu. Intonazioari dagokionez, hemen aurkezten duguna hasieratzat baino ezin har daiteke; esaldi-mota desberdinen kurben konfigurazioak aztertzea gelditzen zaigu, bai-ez galderak, N/Z galderak, ezezkoak, etab. Azkenik, uste dugu ezen, azentua eta intonazioaren arteko erlazioetan sakontzea ere guztiz interesgarria gerta daitekeela.